

Aitz-ura duzu, azpirik dator,
uda ta negu otz xamar;
kare artetik irazi arren,
geieirik ez, ezta kar;
on-ederra da idi-beintzat
etxe aurrean pirri-par,
ta suetean, agortu gabe,
alaiturik gure batzar.

Ur, ur gardena! , mendiko ura!
guk biziki opatua!
Iritxi zaitez zurmur goxozko
udaro izan naiz negua.
Txori malatsak, esker aundiko,
deskeintzu goizez kantua;
nik ere berdin opatzen dizut
biotzetiko gar-sua.

GOIZEKO IZARRA

Noiz ez ote zeru pean izarra eder? Zeru izarratua daukate ertilariak eder-edertzat, Nik badut baserrian ori ikuskatzeko era bikaiña! Goizez, orraitio, lanera irtetzerakoan ez al dut oraindik zoragarriago ortzi urdiñean dizdizka dudan izar bakarra?

Doiñu: «Gizon gazteak ezkontzeko,,».

Gora dut zeruan izarra
nik egea uztean,
egun urratzetik igeska
itzala doanean;
sarri-sarri dut txeraz agurtzen
etxetik irtetzean.

Naitaez bear du gizonak
ark emaniko poza,
egun-nekeak goibel jartzen
dionean biotza:
udaberriz naiz udagoienez
laztan dut bere erlantza.

Euzkiari dabil jarraika,
gaur eskoi, biar ezker,
lore inguruan tximilota
dabilllen bezain laster,
Bekit etenge nere arloan
lanaren sari eder.

Hiun aurrean leen argi dut,
iñoiz musu betia,
iñoiz laurden erakusten du,
baita iñoiz erdia;
oso biribil naiz erdikiña
beti dut nik maitia,

Ik ere, izar, baduk samiñik;
otza ornen aiz oso,
ta argi-izpirikan ez duk
neroni emateko;
illargiaren edu aiz nunbait,
gure lurraren urko.

Baiña eguzkitik jasoa
bialtzen diguk aurki,
dukan ortatik errukior
guri emanaz noski;
orla ongille aiz, biotz-bera,
gutzat egiz soroski.

Izar! , igan bizirik ote?
Belarra ornen duk or.
Dena delarik, neretzat aiz
goiz ta arrasti zorakor!
Ik jarrai, Otoï, zeru orretan
poz-emaille dardarkor!

TXERTAKETAK

Sarri esan bezela. udazkena ez da aro txarra zugatz-landare berriak jartzeko, edo-ta soro-inuiño ta landa bazterretan daudenak iñausi, garbitu ta kare-esnez igurtzi eder bat emateko, Landarak beren izerdia date, lurrak damakion janaria sustraitik gora darama izerdi onek. Landarak aziz eta mentuz ugaritzen ditugu: landareak lurrari kentzen dio bear duen janaria; mentuak, ordea, landareari.

Doiñu: «Baratzeko pikuak...n.

Etxe baranoa dut zugaitzez joria,
sagar, okaran, orisko, mizpil, madaria;
urte barruan ditut arretatsu zaintzen,
pude, makets ti aiotza noznai erabiltzen.

Zugaitzak barnerantza iru zati dauzka,
gaiñ-azal, barne-egur eta biotz-una.
Azalpe zear doa landare izerdia,
gora ta beera iñoiztxo alerto gabia.

Azalak ere bere zatiak dizkizu,
heïn edo beiñik oartu ba duzu;
azal-gaiña, mamia eta azalpea;
gaia duzu geienez orlegi ta mea.